

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

**13/2019 Foru Araua, irailaren 6koa, uztailaren 30eko 1/2019 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko dena, onesteko Arabako zerga araudia egokitzea Estatuak hainbat zergatan egindako aldaketetara**

Arabako Batzar Nagusiek, Batzorde Iraunkor gisa eraturako Arautegi eta Barne Gobernu Batzordeak 2019ko irailaren 6an egindako bilkuran, ondoko foru araua onetsi dute:

13/2019 Foru Araua, irailaren 6koa, uztailaren 30eko 1/2019 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko dena, onesteko Arabako zerga araudia egokitzea Estatuak hainbat zergatan egindako aldaketetara

#### HITZAURREA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zerga Orokorrari buruzkoa- 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorriz, Foru Gobernu Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak direla-eta, uztailaren 30eko 1/2019 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, onesteko Arabako zerga araudia egokitzea Estatuak hainbat zergatan egindako aldaketetara.

Aipaturiko 8. artikulua 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Batzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Batzar Nagusietako Osoko Bilkurak baliozkotze akordioa hartuta eta 2013ko apirilaren 22ko Arabako Batzar Nagusietako funtzionamendu araudia aldatzeko 17/2013 Foru Arauaren 147. artikulua arabera, bidezkoa da aipaturiko Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko foru araua ematea.

Artikulu bakarra. Baliozkotuta geratu da 1/2019 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, uztailaren 30ekoa, onesteko Arabako zerga araudia egokitzea Estatuak hainbat zergatan egindako aldaketetara.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko irailaren 6a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**